

KLIMA-ALDAKETA

OIARTZUNGO ESKOLAKO AGENDA 21



IKASTETXEAREN BARNE-DIAGNOSTIKOA EGIN DUGU ETA HOBEKUNTZA-NEURRIAK PROPOSATU DITUGU



Aurreko buletin elektronikoan aipatu genizuen moduan, Oarsoaldea eskualdeko garapen agentziaren koordinazioarekin eta eskualdeko udalen babesarekin, eskualdeko zenbait ikastetxe **50/50 izeneko egitasmoan** parte hartzen ari gara. Elizalde herri-eskola eta institutua dira Oartzunen proiektuan parte hartzen ari direnak (Elizaldez gain eskualdeko beste 3 ikastetxek ere bat egin zuten egitasmoarekin).

Proiektu honek ikastetxean kontsumitzen dugun energia aurrezte eta eraginkortasuna handitzea bilatzen du eta horretarako ezinbestekoa da ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko gainerako eragileen ohituretan eragitea. Horrela, **azken hilabeteetan**, besteak beste, **ondorengo ekintzak burutu ditugu, lehenik, gure ikastetxearen egoera zein den ezagutzeko, eta bigarrenik, lortutako emaitzak aztertuz, energia eta ura modu arduratsuan erabiltzeko:**

- Uraren eta energiaren kontsumoen gaineko jarraipena egin dugu (energiaren kasuan, bai berokuntza zein elektrizitateari lotutako kontsumoak). Lortzen diren emaitzak panel energetikoan jartzen ari gara.
- Gela guztietan konfort termikoaren galdetegia pasa eta osatu genuen. Horri esker, norbera eroso sentitzen den tenperaturari lotutako informazioa jasotzeko aukera izan genuen.
- Astero gelako arduradunak ikasgelako tenperatura neurtzen du eta argia nahiz berogailuen erabilera egokia kontrolatzen du.
- Irakasle ezberdinen partaidetzarekin, ikastetxeko beste puntuetan ere (irakasleen gela, korridoreak, gela bereziak, etab.) tenperaturak erregistratzen dira.
- Ikastetxeko plano batean eraikinean ditugun argi-puntuak eta berogailuen kokapena adierazi ditugu, ondoren hobekuntza batzuk proposatzeko.
- Familiei kontsumo ohituren inguruan galdetegia pasa genien eta une honetan lortutako emaitzak aztertzen ari gara.



EROSOTASUN TERMIKOARI BURUZKO GALDETEGIAREN EMAITZAK

Ikasturte honetan lantzen ari garen gaiaren (klima-aldaketa) ikastetxeko diagnostikoari lotuta aztertu dugun arloetako bat konfort termikoarena da. Horretarako, gela guztietan galdetegi batzuk osatu genituen eta hauek dira lortutako emaitza esanguratsuenak:

- **Ikasleen ia erdiak adierazi du ikasgeletako neguko tenperatura egokia dela.** Egokia edo nahiko egokia dela erantzun duten ikasleen erantzunak batuz, %72era heltzen gara. Bestalde, %20 inguruk hotza pasatzen duela adierazi du eta ikasleen gutxiengo batek (ia %6ak), aldiz, beroa izaten duela.



- Beste geletako eta korridoreetako neguko erosotasun termikoari dagokionez, **emaitza onena korridoreen kasuan lortu da; izan ere, ikasleen %80ak uste baitu bertako tenperatura nahiko egokia dela.** Hauek dira gainerako geletan lortutako emaitza adierazgarrienak (**tenperatura nahiko egokia dela adierazi dutenen portzentajea**):
 - Liburutegia: %61.
 - Informatika-gela: %65.
 - Informatika II gela: %68.
 - Teknologia-gela: %70.
 - Plastika: %65.
 - Laborategia: %61.
 - Bikoizketa-gela: ia %40 (ikasleen %47ak ez dakiela edo gela erabili ez duela aipatu du).
- **Neguan, beroa sentitzean, nahiz eta berogailua piztuta egon, leihoa irekitzeko ohitura txarra zabaldua dagoela adierazi du ikasleen gehiengoak** (ia ikasleen %60ak komentatu du sarritan edo oso maiz gertatzen dela egoera hori).
- **Ikasleen ia erdiak aipatu du ikastetxean eroso egoteko arropa egokia jantzita eramaten duela baina %33ak adierazi du batzuetan ez daramala soinean arropa egokia.**

Galdetegia erantzutearekin batera, ikasleek jokaerak hobetzera zuzendutako proposamen zehatzak planteatu zituzten.

HERRIKO EGOERA ZEIN DEN AZTERTU DUGU



Martxoaren amaieran klima-aldaketarekin zerikusia zuzena duen energiaren arloan gure herria zein egoeretan aurkitzen den ezagutzeko asmoz, jarduera ezberdinak antolatuta ditugu eta lana ikastetxeko maila ezberdinetako ikasleen artean banatu dugu:

- Energiaren kudeaketarekin zerikusia duten **udal-langileei elkarrizketa** egin genien eta horrekin batera, klima-aldaketari aurre egiteko eta bere ondorioetara egokitzeko asmoz Oartzungo Udalak eman dituen pausoen berri izan genuen.
- **DBHko 1. Mailako ikasleek 2. Mailakoei energiaren erabilerari buruzko galdera ezberdinak planteatu zizkieten.**
- Elizalden kokatutako **saltoki txiki bateko arduradunari klima-aldaketaren gaiarekin zerikusia duen elkarrizketa egitea.**

Orain lortutako emaitza guztiak aztertu, dagokion ondorioak atera eta Elizalde Institutuak Udalari egindako hobekuntzarako proposamenak prestatuko ditugu. Proposamen horiek Oartzungo 3 ikastetxeok maiatzaren 21ean, udaletxeko bilkura-aretoan, 10:30tan izango dugun Eskolarteko Foroan aurkeztu eta eztabaidatzeko aukera izango dugu.